

# Funtsezko baliabideak

Gure erakundea baliabide ezberdinez osatuta egongo da. Kontutan hartuko ditugun baliabideen artean hauek nabarmentzen dira, baliabide fisikoak, baliabide intelektualak eta giza baliabideak.

Baliabide fisikoei dagokienez, material desberdinak izango ditugu eskuragarri, adibidez; kartulinak, liburuak, egurrezko piezak eta abar. Material honek gehienbat motrizitatearekin lotutako beharrak lantzeko aukera emango liguke. Material anitz izateak aukera asko ematen dizkio erakundeari, horrela, haurrak laguntzeko baliabide gehiago izango ditugulako. Saio bakoitzean erabiliko dugun materiala haurren arabera moldatuko da, adibidez, psikomotrizitate arloan hobetu nahi duten haurrek psikomotrizitate-blokeak, koltxonetak eta mugimenduarekin lotutako hainbat ariketa egingo dituzte. Garrantzitsua iruditzen zaigu adieraztea, erakundean erabiliko dugun materiala haur bakoitzari moldatuta egongo dela.

Bestalde, baliabide intelektualak daude, baliabide hauen barruan, sormena egongo litzateke, eta baita kide bakoitzak dituen abileziak ere. Gure ustez, haurrekin lan egiten duen erakunde batean, sormena izatea garrantzitsua da. Honi esker, ideia ugari eta berritzaileak sortzea errazagoa egiten zaigu eta hori, bertan dauden haurrentzat onuragarria izan daitekeela uste dugu. Baliabide hauekin lortuko duguna izango da, saio bakoitzean ariketa berri eta eguneratuak proposatu ahal izatea. Haurren interesa eta ongizatea ahalik eta gehien bermatu ahal izateko. Beraz, horregatik gure erakundeko kideen gaitasunei garrantzia ematen diegu, horrela erakundeak aurrera egiten jarraituko du, gero eta metodologia eta ideiei eguneratuago, erakargarriago eta interesgarriagoekin.

Eta azkenik, giza baliabideei dagokienez, erakundeak hainbat funtzio izango lituzke, esaterako, langileen beharrak identifikatzea, langileak kontratatzeke modua erabakitzea, langileen soldatak kudeatzea eta abar.

Gure erakundean baliabide hauei garrantzi handia emango diegu, azken finean, oinarrizko baliabideak bermatzea ezinbestekoa delako eta erakunde batek kudeaketa on bat izan behar duelako. Oso garrantzitsua izango da langileek egiten duten lana, batez ere, haurrekin egiten diren lan saioak; beraz, arreta handia izan behar da langileak kontratatzeke orduan.

Eta gure erakundearen idei eta helburuekin bat datozen ahalik eta profesional adituenak kontratazen saiatuko gara. Beti ere, haurren ongizatean eta ikasteko duten behar edo nahi horrengan pentsatuz.